

HARRA!

AGENDA

GASTEIZKO UDALAREN BERDINTASUNERAKO POLITIKETAN
SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA TXERTATZEKO PLANGINTZA
2018-2021



HARRA!

AGENDA

GASTEIZKO UDALAREN BERDINTASUNERAKO
POLITIKETAN SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA
TXERTATZEKO PLANGINTZA

2018-2021

HARA!

Gasteizko Udalaren berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko 2018-2021eko agenda

☎ 945 161 345

✉ igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

f Berdintasuna.Igualdad

🐦 @VG_berdintasuna

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

Argitalpena: Gasteizko Udala, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila, Berdintasunerako Zerbitzua

Idazkaritza teknikoa: Idoia Eizmendi Aldasoro

Diseinua eta maketazioa: Sra. Milton

Hara! Material grafikoa: **HABEMUSSTUDIO**

Itzulpena: Alaitz Andreu

Inprimaketa: Artes Gráficas IMPRESIÓN

2018ko abendua




Eduki hau Creative Commons baimenaz babesturik dago; zehazki, Aitortu – PartekatuBerdin (by-sa) baimenpean. Baimen horrek aukera ematen du lan hau eta lan honen ondorioz sor daitezkeenak merkataritza-xedeetarako erabiltzeko eta banatzeko; beti ere, edukien jatorrizko lizentzia bera erabiltzen bada.


<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/es/>

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	004
LEGENDA	006
AGENDA	008
1. ILDOA. BERDINTASUNA UDAL-GOBERNUAREN EREDUAN	012
2. ILDOA. ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA	022
3. ILDOA. AHALDUNTZE FEMINISTA.....	023
4. ILDOA. INDARKERIA MATXISTARI GABEKO HIRIA	027



**AURKEZPENA
ETA IRAKURTZEKO GAKOAK**



AURKEZPENA

HARA! Gasteizko Udalak 2018-2019ko aldian berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko xedez abiarazi dituen estrategien eta jardueren multzoa jasotzen du *Gasteizko Udalaren berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko 2018-2021eko agendak*. Halaber, 2020-2021eko aldian jarduteko ildo nagusiak identifikatzeko orientabide batzuk jasotzen ditu.

2014an hasitako prozesu baten emaitza da dokumentu hau; izan ere, prozesu bati ekin zitzaion berdintasunerako politiketan *emakumeak* subjektu politikoa zabaltzeko premia zegoela hauteman zenean: emakumeen subjektu politikoari uko egin gabe, sexu-genero sisteman (patriarkatuan) berdin-berdin oinarritutako arrazoiengatiko diskriminazioari aurre egiten dieten pertsonak sartu behar ziren. Era berean, berdintasunerako politikek aintzat hartu behar dituzte egiturazko beste diskriminazio-iturri batzuk ere (hala nola, klase soziala, adina, jatorri kulturala, aniztasun funtzionala, administrazio-egoera...), sexu-genero sistemarekin elkarreraginean jarduten baitute, eta LGTBI pertsonen zaurgarritasuna eta diskriminazioa indartzen.

Urte hauetan, bada, gure udalerriko LGTBI pertsonen eta kolektiboen errealitateak, interesak eta eskaerak sakon ezagutzeko hainbat prozesu sustatu ditu Gasteizko Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuak. Prozesu horiekin, gainera, berdintasunerako politika publikoen esparruan sexu- eta genero-aniztasuna jorratzeko moduaren inguruan hausnartu da, dimentsio ideologikoari nahiz praktikoari dagokienez.

Hala, hasiera batean, *Sexu-aniztasuna eta genero-identitateak berdintasunerako politiketan*¹ izeneko mintegia antolatu zuen Berdintasunerako Zerbitzuak, eta prestakuntza-lerro espezifikoa txertatu zuen Gasteizko Jabetze Feministarako Eskolan². Ondoren, *Berdintasun-politiketan sexu- eta genero-aniztasuna sartzeko orduan dauden*

1 *Sexu-aniztasuna eta genero-identitateak berdintasunerako politiketan mintegia:*

<https://v-g.eus/2rIVnVh>

2 *Lehen, Gasteizko Emakumeen Berdintasunerako eta Jabetzarako Eskola zen:*

<https://v-g.eus/2COhjQF>

3 *Berdintasun-politiketan sexu- eta genero-aniztasuna sartzeko orduan dauden erronkei, eztabaidei eta praktikei buruzko hausnarketa estrategikoa egiteko jardunaldia:*

<https://v-g.eus/2IliOEQ>

*erronkei, eztabaidei eta praktikei buruzko hausnarketa estrategikoa egiteko jardunaldia*³ antolatu zuen, eta *Desirak plazara. Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa*⁴ argitaratu.

Bestetik, *Hara! Vitoria-Gasteizko Genero Berdintasunerako 2018-2021eko IV. Plana*⁵ genero-berdintasunerako plana da, baina emakumeen eta gizonen berdintasun-arloa gainditzen du, politika publikoek sexu- eta genero-aniztasuna txertatzean aurrera egin eta, horrela, giza eskubideen ikuspegitik abiatutako esku-hartzea hobetu dezatela bilatzen duen tresna baita.

Agenda hau, hortaz, prozesu horien guztien emaitza da. LGTBI pertsonak eta kolektiboek eskatutako jarduera sorta bati ematen dio lehentasuna, irizpide nagusi hauekin bat eginez:

- LGTBI pertsonengan zuzeneko inpaktu positiboa edukitzea
- Udalaren antolaketa-kulturaren edota gizartearen balio-aldaketan inpaktua edukitzea
- Jasangarria (hala behar duten jardueretan) eta ekonomikoki bideragarria izatea
- Iturri batek baino gehiagok identifikatu izatea
- *Hara! Vitoria-Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planarekin* lerrokatuta egotea

Amaitzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu LGTBI pertsonari eta kolektiboari eta sexu- eta genero-aniztasunaren eremuan lan egiten duten elkarteei, beren bizipenak eta eskaerak gurekin partekatzeagatik, parte hartzeagatik eta lan egiteagatik, gure lana hobetzeko balioko baitu horrek guztiak, zalantzarik gabe.


⁴ **Desirak Plazara. Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa:**

<https://v-g.eus/2GgStpO>


⁵ **Hara! Vitoria-Gasteizko Genero Berdintasunerako 2018-2021erako IV. Plana:**

<https://v-g.eus/2Mxok9k>

LEGENDA




2020-2021EKO ALDIRAKO ORIENTABIDE OROKORREN AZALPENA




ILDO ESTRATEGIKOEN
AZALPENA





ILDO ESTRATEGIKOAK





BERDINTASUNA UDAL-GOBERNUAREN EREDUAN

1
ILDOA

1XE

VITORIA-GASTEIZKO UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA ZEHAZTEA

1.1.1XO 1.1.2XO 1.1.3XO

2XE


UDALEKO LANGILEAK SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNEAN GAITZEA PIXKANAKA

1.2.1XO

1.3.1XO 1.3.2XO 1.3.3XO
1.3.4XO 1.3.5XO

AURRERA EGITEA GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZETAN ETA ADMINISTRAZIO-EGINTZA ETA -PROZEDURA KOMUNETAN TXERTATZEKO ORDUAN

3XE



BERDINTASUNA UDAL-GOBERNUAREN EREDUAN


VITORIA-GASTEIZKO UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA ZEHAZTEA

1 ILDOA


1XE

Agendaren bidez berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko hartu diren konpromisoak ezagutaraztea askotariko agenteei

1.1.1XO



2018-2019KO ALDIRAKO JARDUERAK



UDALEKO LANGILEAK SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNEAN GAITZEA PIXKANAKA

2XE

Udaleko langileak sexu- eta genero-aniztasunean prestatzea

1.2.1XO

A Berdintasunerako Zerbitzua

2019

Berdintasunerako Zerbitzuko taldea indartzea, berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeari buruzko prestakuntza espezializatuaren bidez

- 1 Egindako prestakuntza-ekintza espezializatuen kopurua
- 1 Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren arabera

A Berdintasunerako Zerbitzua

2019

Berdintasun-arloko prestakuntza espezializatua ematea teknikariei eta politikariei, sexu- eta genero-aniztasunari buruzko edukiak jasoko dituenari

- 1 Egindako prestakuntza-ekintza espezializatuen kopurua
- 1 Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta zerbitzu edo sailaren arabera
- 1 Trebatutako pertsonen %a, sexuaren eta zerbitzu edo sailaren arabera

A Berdintasunerako Zerbitzua

2018

Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko edukiak jasoko dituen prestakuntza espezializatua ematea Udaltzaingoari, erasoen biktima diren LGBTBI pertsoneri arreta egokia emango zaiela bermatzeko xedez

- 1 Egindako prestakuntza-ekintza espezializatuen kopurua
- 1 Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta zerbitzu edo sailaren arabera
- 1 Trebatutako pertsonen %a, sexuaren eta zerbitzu edo sailaren arabera

AURRERA EGITEA GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZETAN ETA ADMINISTRAZIO-EGINTZA ETA -PROZEDURA KOMUNETAN TXERTATZEKO ORDUAN

3XE



A Berdintasunerako Zerbitzua
 A Udaleko Komunikazio eta Protokolo Zerbitzuarekin elkarlanean

2018/2019

Sexu- eta genero-aniztasuna ikusgarri egiteko xedea sartzea Berdintasunerako Zerbitzuaren komunikazio-estrategian, ikuspegi ez-heteronormatibo interseksionalarekin

- ❗ Komunikazio-estrategia
- ❗ Aniztasuna ikusarazteko txertatutako ekintzen kopurua
- ❗ Komunikaziorako identifikatutako agente giltzarrien kopurua

A Berdintasunerako Zerbitzua

2019

Mekanismo inklusiboak zehaztea, pertsonak sexu-generoaren arabera sailkatu daitezkeen udalaren informazio-bilketan


- ❗ Ezarritako mekanismoak
- ❗ Abiarazi diren mekanismo motak

A Berdintasunerako Zerbitzua

2018/2019

Sexu-generoaren araberako hirugarren laukitxoaren sartzea Jabetze Feministarako Eskolaren, Beldur Barik ekimenaren, Berdintasunerako Elkargunearen eta identifika daitezkeen bestelako proiektuen jardueren ebaluazio-galdetegietan

- ❗ Sexu-generoaren araberako hirugarren laukitxoaren sartu duten jardueren kopurua



UDAL BARRUKO, UDALEN ARTEKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA

4XE

Koordinazioa eta lankidetzaren indartzea, udal-gobernuaren eremuan berdintasuna benetan ezartzeko bide gisa

1.4.1XO

A Berdintasunerako Zerbitzua

2018/2019

Erakundearteko lankidetzaren antolatzea Arabako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta intereseko beste erakunde batzuekin, baterako estrategiak koordinatzeari begira, berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko xedez

- 1 Elkarrekin egindako bileren kopurua
- 1 Koordinatuta abiarazitako estrategien kopurua eta mota

UDALAREN BERDINTASUNERAKO POLITIKA INDARTUKO DUTEN PARTE HARTZEKO GUNEA BULTZATZEA

5XE

Gasteizko herritarrekiko harremana eta elkarrizketa sustatzea

IV. Plana etengabe hobetzeko bidea ematea, kontrasterako eta jarraipenerako kanpo-talde baten bidez

1.5.1XO

1.5.2XO

A Berdintasunerako Zerbitzua

2019

Sexu- eta genero-aniztasuneko talde bat sartzea Berdintasunerako Elkargunera

1 Elkargunean sexu- eta genero-aniztasunaren inguruan jorrotutako informazioen kopurua, mota eta aldizkakotasuna


A Berdintasunerako Zerbitzua

2018/2019


Sexu- eta genero-aniztasunean aditua den pertsona bat sartzea IV. Planaren kontrasterako kanpo-taldera

1 Lantaldea sortzea
1 Sexu- eta genero-aniztasunaren eremuan txertatutako hobekuntzen kopurua

2020-2021EKO ALDIRAKO ORIENTABIDE OROKORRAK







**2018-2019KO
ALDIRAKO JARDUERAK**

Sexu- eta genero-aniztasunaren arloan hausnartzeko, trebatzeko, parte hartzeko eta eragiteko guneak sustatu eta sendotzea

3.1.2XO

A Berdintasunerako Zerbitzua

Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta LGBTIfobiaren aurka sentsibilizatzeko bi jardura sartzea gutxienez #Feminismoantzel ildora (Jabetze Feministarako Eskolan 10 eta 18 urte bitarteko gazteei bideratu zaien ildo estrategikoa da #Feminismoantzel)

1 #Feminismoantzel ekimenean sartutako jardueren kopurua

2019

A Berdintasunerako Zerbitzua
A Gazteriaren Zerbitzua

Komun inklusiboei buruzko bi esperientzia pilotu jartzea martxan Emakumeen Etxean, Gazteen Zerbitzuak sustatzen duen Mixtizaje proiektuaren bidez

1 Egindako jardueren memoria

2019

A Berdintasunerako Zerbitzua

Blusentzako eta Neskentzako prestakuntza-prozesuari babesia ematea eta beren protokola berrikustea, LGBTI pertsonen kontrako erasoak barne har ditzan horrek

1 Egindako jardueren kopurua eta mota
1 Prozesuan parte hartu duten pertsonen eta kuadrillen kopurua
1 LGBTI pertsonen kontrako erasoetarako erantzuna sartzea Blusen eta Nesken protokolora

2019

A Berdintasunerako Zerbitzua
A Bizikidetzaz Zerbitzua

2018/2019

LGTBI kolektiboek – herritarrak sentsibilizatzeari eta kontzientziatzeari begira– Gasteizen LGTBI memoria historikoa berreskuratzeko abiatzen dituzten ekimenei laguntzea

I Babestutako ekimenen kopurua eta mota

A Berdintasunerako Zerbitzua

2019

Sexu- eta genero-aniztasuna jorratuko duen sentsibilizazio-kanpaina bat egitea Gasteizen

I Egindako kanpaina

A Berdintasunerako Zerbitzua

2019

LGTBI pertsonen errealitatea ikusaraztea aisialdiko eta jaietako testuinguruetan, Andre Mari Zuriaren Jaietako Prebentzio Kanpainaren bidez, hedatzen diren irudi eta mezuetan errealitate horiek txertatuz

I Andre Mari Zuriaren Jaietako Prebentzio Kanpainan LGTBI pertsonen errealitatea ikusarazteko egindako ekintzen kopurua eta mota

2020-2021EKO ALDIRAKO ORIENTABIDE OROKORRAK

AHALDUNTZE FEMINISTA

3


ILDOA

LGTBI PERTSONEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA

1XE

• Sexu- eta genero-aniztasunaren arloan ikuspegi interseksionaletik hausnartzeko, prestatzeko eta parte hartzeko guneak eta prozesuak indartzea lehenengo biurtekoan:

- LGTBI pertsonak eta kolektiboak gehiago ahalduntzea lagunduko duten hausnarketa- eta prestakuntza-guneak indartzea
- LGTBI pertsonen eta kolektiboek modu aktiboan parte hartzeko guneak sustatzea
- LGTBI pertsonen ahalduntzea sustatzen duten erakunde eta ekimenei laguntzea; bereziki, profil zaugarrienekin lan egiten duten erakundeei
- Zaugarritasun-faktoreak identifikatzen laguntzen duten eta politika publikoetan sexu- eta genero-aniztasunaren arloko estrategiak planifikatzeko lan-elementuak eskaintzen dituzten ikerketa-programak babestea eta sustatzea
- Gasteizen LGTBI kolektiboek ekarpenak ikusarazteko, ezagutarazteko eta aitortzeko ekimenak babestea eta sustatzea



INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HIRIA

4
ILDOA

INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOARI, SENTSIBILIZAZIOARI ETA SALAKETARI LAGUNTZEA

4.1.1XO

4.1.2XO

4.1.3XO

1XE

2XE

ERAKUNDEAREN BARRUKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA

4.2.1XO



4.1.1XE

Indarkeria matxistaren aurrean prebenitzeko eredu baten ezarpena bultzatzea udal-ekintzaren multzorako

A Berdintasunerako Zerbitzua, estrategian sartuta dauden sailekin batera

2018

Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzea indarkeria matxista oso-osorik prebenitzeko sailarteko strategiaren barruan

1 Estrategiari buruzko dokumentua

A Berdintasunerako Zerbitzua, estrategian sartuta dauden sailekin batera

2018/2019


Sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea indarkeria matxista prebenitzeko programetan (gazteei zuzendurikoetan)

1 Gazteei zuzenduriko prebentzio-programetan abiarazitako neurrien kopurua eta mota

2018-2019KO ALDIRAKO JARDUERAK

Indarkeria matxistaren aurrean salaketa publikoa egiteko eta biktimen erreparaziorako ekintza kolektiboa sustatzea

4.1.2XO



Indarkeria matxistaren arloan zaurgarritasun-egoera berezian dauden kolektiboek dauzkaten beharrak eta interesak ikusgarri egitea

XO4.1.3

A Berdintasunerako Zerbitzua

2018

LGTBIfobiaren aurkako behatokia sortzea

- 1 Behatokia sortu da
- 1 Behatokia abiatzeko hitzarmena

A Berdintasunerako Zerbitzua

2019

LGTBI pertsonen informazioa, kontzientziazioa, prebentzioa, detekzioa, deribazioa eta arreta hobetzeko jarraibideak identifikatzea, behatokiaren esparruan eta LGTBI kolektiboekin elkarlanean


- 1 Proposatutako neurrien kopurua eta mota
- 1 LGTBI kolektibo parte-hartzaileen kopurua

A Berdintasunerako Zerbitzua
A Gizarte Politiketako Saila

2019

Arreta emateko, bidelagun izateko eta psikologikoki nahiz juridikoki laguntzeko programak hobetzeko neurriak proposatzea eta diseinatzea behatokian, LGTBI kolektiboekin batera, lesbianen aurkako berariazko indarkeria jorra dadin

- 1 Proposatutako neurrien kopurua



ERAKUNDEAREN BARRUKO
ETA ERAKUNDEEN ARTEKO
KOORDINAZIOA HOBETZEA

2XE

Erakundeen barruko eta erakundeen arteko koordinazio-mekanismoak berrikustea eta indartzea, indarkeria matxistari arreta osoa emateko

4.2.1XO

- A Berdintasunerako Zerbitzua
- A Gizarte Politiken Saila eta Udaltzaingoaren Zerbitzua

2019

Etxeko eta generoko indarkeriaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko, horiek bideratzeko eta horien jarraipena egiteko II. udal-protokoloa berrikustea, eraso LGBTIfobikoei arreta eta erantzuna emateko moduan, arreta berezia jarriz gazte eta nerabeengan

1 Protokoloa berrikusi da



- A Prebentzio Zerbitzua
- A Berdintasunerako Zerbitzua

2019

Laneko jazarpena, sexu-jazarpena eta jazarpen sexista edo sexuagatiko jazarpena prebenitzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren protokoloa berrikustea eta eguneratzea, sexu-joerarengatiko edo genero-identitatearengatiko jazarpena txertatzeko xedez

1 Protokoloa berrikusi da

2020-2021EKO ALDIRAKO ORIENTABIDE OROKORRAK

